



VENDING-ZERBITZUA – Bikaintasun maila

Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

Hasteko, ingurumen-irizpideak aintzat hartuko direla azpimarratu beharra dago¹:

1. koadroa

Espazio publikoaren erabilera uztea makina automatikoak instalatzeko [zehaztu edari-makinak (hotzak eta/edo beroak) eta/edo janari-makinak diren] ingurumen-irizpideekin.

1.2. Nahitaz bete beharreko espezifikazio tekniko baloragarriak, JANARIA EDO EDARI ONTZIRATUAK SALTZEKO MAKINENTZAKO esleipen-irizpideetan

1.2.1. Makinei dagozkien irizpideak

2. koadroa

- Lizatzaileek kokapen bakoitzerako proposatzen duten makinaren zerrenda aurkeztuko dute, makina bakoitzaren urteko energia-kontsumoa adierazita (kWh/urte), EN-50597 arauaren edo baliokidea den arauaren arabera.
- Urteko energia-kontsumo baxuko makinak izatea hobetsiko da.
- [Makina hoztuetan] Gas hozgarrien eta apar isolatzaileen gasen ABA ez da izango 150ekoa baino handiagoa². Horretarako, apar isolatzaileetan eta hozteko sisteman erabilitako gasa eta bere ABA zehaztu beharko ditu enpresak.

¹ Ingurumen-alderdiez gain, lizitazio honek joera du gizarte-alderdiak ere kontuan hartzeko, esaterako, bidezko merkataritzako produktuak sartzea. Horiek ere sartu beharko dira, hemen aipatutako ingurumen-irizpideekin batera.

² Berotegi-efektuko gas fluoratuei buruzko 517/2014 (EB) Erregelamenduan gas fluoratuen zerrenda kontsultatu daiteke, bakoitzaren atmosfera berotzeko ahalmenarekin batera. Derrigorrezko irizpide hori sartu baino lehen, gomendagarria da hornitzaile edo fabrikatzaile nagusiekin egiaztatzea.

- ABA txikieneko gas hoztaileak eta apar isolatzaileak dituen hobetsiko da. Informazio hori 2. eranskinean jasota dago³.
- Ontziratutako edariak saltzeko makinak ontziak berreskuratzeko makinekin batera egon beharko dute, berrerabiltzeko edo birziklatzeko. Berreskuratzea sustatzeko, makinak edariari gainkostu bat gehituko dio gordailu moduan; ontzia itzultzen denean, makina berreskuratzaileak kopuru hori itzuliko du.

1.2.2. Emandako produktuentzako irizpideak

Proposaturiko irizpideak edariak eta mokaduak saltzen dituzten makinei dagozkie.

Prestatutako platerak saltzen dituzten makinaren kasuan, jantoki-zerbitzuetarako definitutako gomendioak eta irizpideak jarraitu beharko dira.

3. koadroa

- Ez da eskainiko genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak izatearen etiketa behar duen produkturik, genetikoki eraldatutako elikagaiei eta pentsuei eta genetikoki eraldatutako organismoen eta horiekin ekoiztutako elikagaien eta pentsuen trazabilitateari eta etiketatzeari buruzko 1829/2003 eta 1830/2003 (EE) Erregelamenduen arabera.
- Gainera, produktuen gutxienez % 20⁴ (goiko unitatera biribilduz) nekazaritza ekologikokoak izan beharko dira, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren edo ondorengo bertsioen arabera⁵.
Produktu hauentzat, administrazioak ezarritako gehieneko prezioak gaintitu ahal izango dira [administrazioak ezartzen baditu].
- Nekazaritza ekologikoko produktuen ehuneko handiena eskaintzen duena hobetsiko da. Administrazioak ehuneko hori erabakiko du kontratua sinatzen duenean.

³ Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentua ikusi (helbide elektroniko honetan eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

⁴ Makinak edariak eta mokaduak saltzen baditu, irizpide hau betetzen eta frogatzen erraza izango da. Ehunekoa handitzeko aukera egongo da, administrazioak duen interesaren eta merkatuaren egoeraren arabera.

Makinak edariak bakarrik saltzen baditu (zukuak eta freskagarriak), zailagoa izango da. Beraz, ehunekoa % 10era edo produktu batera murriztu daiteke.

⁵ 834/2007 Erregelamendua indarrean egongo da 2020ra arte. 2021etik aurrera indarrean dagoen erregelamendua 2018/848 (EB) Erregelamendua da. Horregatik, lizitazioaren argitalpen-egunaren arabera egokitu beharko da erreferentzia.

Lizitazaileak makinan salduko diren produktuen proposamena aurkeztuko du 3. eranskinean⁶, nekazaritza ekologikoak direnak adierazita.

1.3. Nahitaez bete beharreko espezifikazio tekniko baloragarriak, EDARI BEROEN MAKINA AUTOMATIKOENTZAKO esleipen-irizpideetan

1.3.1. Makinei dagozkien irizpideak

4. koadroa

- Edari beroen makina guztiak (oso egoera arrazoituetan salbu) kafe-alezkoak izango dira.
 - Gainera, zerbitzua edalontziarekin eta edalontzirik⁷ gabe eskaintzeko aukera egongo da eta aukera hauetako bakoitzak prezio-sistema bana izango du. Edalontziarekin aukeratzeak XX zentimoko gainkostua izan beharko du [administrazioak zehaztuko du].
 - Lizitazaileek toki bakoitzerako proposatzen duten makinaren zerrenda bat aurkeztuko dute, atsedeneko kontsumoa (idle) Wh/24h-tan, guztizko energia-kontsumoa Wh/l-tan eta makina bakoitzaren sailkapen energetikoa adierazita, Europako Vending Elkartearen (EVA-EMM 3.1b) testaren edo haren baliokide den beste baten arabera.
 - Makinen gutxieneko energia klasea A edo hobea izango da⁸.
 - Makinek urteko energia-kontsumo (Wh/l-tan) baxuagoak izatea hobetsiko da.
- Informazio hori 2. eranskinean jasota dago.

1.3.2. Emandako produktuentzako irizpideak

5. koadroa

- Ez da eskainiko genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak izatearen etiketa behar duen produkturik, genetikoki eraldatutako elikagaiei eta pentsuei eta genetikoki eraldatutako organismoen eta horiekin ekoizitako

⁶ Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentua ikusi (helbide elektronikoa honetan eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).

⁷ Aukera hau lehenespenezko aukera izan daiteke vending-makinaren kokapenaren arabera.

⁸ Mahaigaineko ekipoak efizientzia gutxiagokoak dira; beraz, gutxieneko sailkapen energetikoa txikiagoa izan beharko da (C edo D klasea). Definitzeko, merkatua kontsultatu beharko da.

elikagaien eta pentsuen trazabilitateari eta etiketatzeari buruzko 1829/2003 eta 1830/2003 (EE) Erregelamenduen arabera.

- Kafe-aleak nekazaritza ekologikokoak izango dira, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren edo ondorengo bertsioen arabera⁹.
- Gainerako produktuen (kafeinarik gabeko kafea, azukrea, tea, kakaoa...) ehuneko jakin bat nekazaritza ekologikokoa izatea hobetsiko da.

2. Gauzatze-irizpideak

6. koadroa

Komunikazioa

- Enpresa esleipendunak argi eta nabarmen jakinarazi beharko ditu hauek saltzeko makinetan:
 - Zein produktu diren nekazaritza ekologikokoak.
 - [Janaria edo ontziraturako edariak dituzten makinetan] Ontzien gaineko gordailua eta berreskuratzeko makinan itzultzea.
 - [Edari beroak saltzeko makinetan] Behin erabiltzeko edalontzia erabiltzeagatiko gainkostua eta «edalontziarekin» markatu behar izatea, «edalontzirik gabe» aukera lehenetsita badago.
- Gainera, administrazioak egin nahi dituen ingurumen-komunikazioko kanpainetan parte hartuko du, saltzeko makinetan publizitaterako dagoen espazioa eskainiz (adibidez, sortutako ontzien gaikako bilketa egokiari buruz, etab.).

Mantentze-lanak

- Esleipendunak zerbitzuaren hasieran makinaren mantentze-lanetarako programa eta egutegi bana aurkeztuko ditu, deskaltzifikaziorako, termostatoak doitzeko, etab.

Kontrola eta jarraipena

- Gainera, urtean behin honakoa adierazten duen txosten bat aurkeztuko du:
 - produktu bakoitzaren urteko kontsumoa;
 - [ontziak itzultzeko makinak badaude] itzulitako ontzien ehunekoa, guztira kontsumitu direnen arabera;
 - [edari beroetan] erabili den erabilera bakarreko edalontzien kopurua eta edalontzirik gabeko kontsumizioen ehunekoa, guztizkoaren arabera;

⁹ 834/2007 Erregelamendua indarrean egongo da 2020ra arte. 2021etik aurrera, indarrean egongo den erregelamendua 2018/848 (EB) Erregelamendua da. Horregatik, lizitazioaren argitalpen-egunaren arabera egokitu beharko da erreferentzia.

- makinaren mantentze-lanen ziurtagiriak;
- emandako nekazaritza ekologikoko produktuen kiloak edo unitateak.

3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar dira elementu baloragarri bakoitzari emango zaion haztapena eta hura ebaluatzeko formula.

Adibide moduan, irizpideetan proposaturiko balorazio-irizpideak aurkezten dira, guztiak ere formula matematiko baten bidez modu automatikoan baloratzeko direnak¹⁰:

7. koadroa: Edari hoztuak eta mokaduak saltzeko makinaren adibidea

Formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak

– **Makinaren ingurumen-ezaugarriak:**

- Makinek energia-kontsumo baxuagoa izatea [gehienez 7].
- Gas hozgarrien atmosfera berotzeko ahalmena baxuagoa izatea [gehienez 5]
- Aparren gasen atmosfera berotzeko ahalmena baxuagoa izatea [gehienez 3]

Produktuen ingurumen-ezaugarriak:

- Nekazaritza ekologikoko elikagaien %a handiagoa izatea [gehienez 5]

7. koadroa: Edari beroen makinaren adibidea

Formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak

– **Makinaren ingurumen-ezaugarriak:**

- Makinek energia-kontsumo baxuagoa izatea [gehienez 10]

– **Produktuen ingurumen-ezaugarriak:**

- Nekazaritza ekologikoko elikagaien %a handiagoa izatea [gehienez 10]

¹⁰ Zenbait formula matematiko erabil daitezke (hiruko erregela sinplea, alderantziz proportzionala, desbideratze estandarra, eta abar) eta bakoitzak eragin jakin bat izango du eskaintzen arteko bereizketan; hortaz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatera egokitutako formula bat ezarri beharko da eskaintzen arteko aldeak proportziorik gabe ez desitxuratzeko.

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztuko da, balizko lizitatzailleek behar beste denborarekin jakin dezaten.

8. koadroa

Lizitatzailleak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, honela zehaztuta:

- a) Zereginen, zerbitzua gauzatzearren eta zerbitzurako proposatu diren makinaren ezaugarrien **memoria deskriptiboa**. Prezioa banakatuta adieraziko da:
 - produktuei dagokien prezioa
 - eskulanari dagokion zatia
- b) **Ingurumen irizpideen checklist (1., 2. eta 3. eranskina)**¹¹, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Lizitatzailleak adierazitako espezifikazioak –bai derrigorrezkoak, bai baloratu ahalko direnak– betetzen direla **frogatzeko dokumentazio** guztia atxiki beharko zaio horri.

¹¹ Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako *checklista*» dokumentua ikusi (helbide elektronikoa honetan eskuragarri: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).